

Jardueren oroitza-txostena 2016

aurkibidea

1	BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA	02
2	ARGITALPENAK	03
3	hermes PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA	05
4	GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA	06
5	URTEMNUGA HISTORIKOAK	22
6	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA	23
7	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA	26
9	SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA	30
10	BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK	34
11	ZABALKUNDEA / KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA	35
11	LORTUTAKO EMAITZEI BURUZKO IRITZIA	36

1.1 Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela bederatzi bat urte hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

2016ko ekitaldian, gutunen, prentsako artikuluen eta kolaborazioen eta irrati bidezko kolaborazioen transkripzioa amaitzeaz gain, Euskadiko UNESCO Etxeak Alberto Onaindiari egindako omenaldian — UNESCO erakundeko kidea izan zelako— parte hartu zuen Fundazioak eta, ekitaldi horretan, Bigarren Mundu Gerrak iraundako urteetan, Markinako abadeak Britainia Handiko irrati-telebistan egindako lanari buruzko hitzaldia eskaini zen. Hitzaldi hori eta Bidebarrietako liburutegian emandako gainerako hitzaldiak liburu elektronikoaren formatuan argitaratu ditu Euskadiko UNESCO Etxeak.

2.1 Alex Salmond «Ametsa ezin da sekula hil – The dream shall never die» liburuaren euskarazko argitalpenaren aurkezpena

Sabino Arana Fundazioak Eskoziako politikari Alex Salmond «Ametsa ezin da sekula hil / The dream

shall never die» liburuaren euskarazko argitalpena aurkeztu zuen otsailaren 1ean. Argitalpen horretan, Britainiako Parlamentuko Komunen Ganberan gaur egun Scottish National Party (SNP)/Eskoziako Alderdi Nazionaleko Kanpo Arazoetarako bozeramaile denak 2014an egin zen Eskoziako independentziari buruzko erreferendumen aurretiko BAI aukeraren aldeko kanpainaren nondik norakoak azaltzen ditu, argitalpen honen egilearen eskutik.

Alex Salmond, SNP alderdiaren sortzaile eta buru ospetsuenetakoa, Eskoziako

burujabetasun eta independentziaren zale porrokatua izan da beti. Eta 2014ko irailean, ia-ia bete zuen ametsa.

Sabino Arana Fundazioak argitaratutako «Ametsa ezin da sekula hil» liburua Eskoziako independentziaren aldeko kanpainaren nondik norakoak ulertzeko egunerokoaren kontakizun zoragarria eta argitara ekartzen digu zertzuk esan eta egin ziren 'etxe barruan' erreferendumen auzia pil-pilean egon zenean.

2.2 «Euskara Foru Aldundien zirkularretan: Bizkaia (1917-1919) Gipuzkoa (1918-1923)» liburuaren aurkezpena

2016ko otsailaren 19an, Sabino Arana Fundazioak, Euskaltzaindiak eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak antolatutako *Euskara Foru Aldundien ibilbidean* izeneko jardunaldiaren baitan, *Euskara Foru Aldundien zirkularretan: Bizkaia (1917-1919) Gipuzkoa (1918-1923)* deritzon liburua aurkeztu zuten Bizkaiko eta Gipuzkoako ahaldu nagusiek, **Unai Rementeriak** eta **Markel Olanok**, hurrenez hurren, eta Zuzenbidearen Euskal Akademiako buruorde eta Euskaltzainburu **Andrés Urrutiak**.

Ekitaldiak, batik bat, XX. mendeko lehen hereneko itzultzaileek euskara sustatu eta hedatzeko egin zuten lan eskerga aitortu zuen. Ildo horretan, Euskaltzainburuak adierazi zuenez, “Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berebiziko ahalegina egin zuten orduko beharrezko erantzuteko moduko zuzenbide- eta administrazio-hizkeraren eredua finkatzen eta euskara harreman-hizkuntza gisa arruntean erabiltzen bi aldundi horien ohiko administrazio-zereginetan. Ahalegin horretan, Sotaren programa giltzarria izan zen Bizkaian. Sotak Kataluniako esperientziak batu zituen eta Bizkaian erabili; geroago, esperientziok Gipuzkoara hedatu ziren. Ingurumari horretan, Biziola eta Arruza, Bizkaian, eta Mujika, Gipuzkoan, garrantzi handikoak izan ziren, terminologia- eta itzulpen-lan izugarria burutu baitzuten, hizkuntza ikuspegi modernoz jantzita, azken batean, Lehen Euskal Gobernuaren (1936-1937) zuzenbide- eta administrazio-jardun elebidunaren aurrebideak hartu zituen euskararen moldeak diskurtso-baliabide apainez hornituta”.



2.3 Artikuluak DEIA egunkariarentzat. Euskal historia eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruko kolaborazioak

2016. urtean, Sabino Arana Fundazioa DEIA egunkariarekin elkarlanean aritu da *Historias de los vascos/Euskaldunen istorioak* izeneko atala lantzen. Atal horretan, Euskadiko historia oldez edo moldeaz hezurmamitu duten gai historikoak eta antropologikoak jorratzen dira.



Aipatutako ekitaldian, ondoko guztiek jardun dute elkarlanean Sabino Arana Fundazioarekin eta Deia egunkariarekin: **Pedro Etxabe Etxabe, Igor Barrenetxea Marañón, Jabier Aspuru, Xabier Ormaetxea, Francisco de Borja Iriarte, Jon Penche, Xabier Irujo, Enrique de la Peña, Joseba Agirreazkuenaga, Mikelats Ardanaz, Txema Montero, Amaia Mujika - Pedro Erice – Alex de Ucaregui, Iñaki Anasagasti, Jean-Claude Larronde, Ramón Berriozabal, Carmen Martín, José Ignacio Salazar, Eduardo J. Alonso, Ricardo Franco, Andres Urrutia, Alazne Díez Muñiz, Magdalena Mignaburu, Gregorio Arrien, Julián Glez. Carrascosa, Joseba Iñaki Sobrino, Patxi Irurzun, Xabier Agirre, Josemari Vélez de Mendizabal, Cirilo Dávila, Javier González de Durana.** Eta horiez gain, Sabino Arana Fundazioko teknikariek eta historialariek.

2016ko ekitaldian, HERMES aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu dira, hain zuzen ere, 52, 53 eta 54. zenbakiak.

52. zenbakia Oroimen Historikoari eskaini zaio eta, bertan, frankisten kolpe militarra gertatu zenetik igaro den 80 urteko aldia eta ondoko diktadura ezarri zenetik igaro den 40 urteko aldia jorratu dira. Ondokoek kolaboratu dute aldizkarian: Luis Garde, José Ignacio Salazar, Xabier Irujo, Fernando Mikelarena, Jean-Claude Larronde, Anxo Ferreiro, Ascensión Badiola eta Bernan Oregi. Elkarriketan, Aranzadiko Francisco Etxeberriak eta Lourdes Erraztik parte hartu dute.

53. zenbakian, gazteen enpleguaren egungo egoera aztertu du. Arloko adituek, besteak beste, unibertsitateko katedradunek, erakundeetako ordezkariak, enpresetako ordezkariak eta abarrek gazteen enplegua etorkizunean bultzatzeko helburuz, gure gizartean zer-nolako aldaketak gertatu behar diren eta, Euskadiko gizarte-, ekonomia-, enpresa- eta Hezkuntza-ezaugarriak aintzat hartuta, zer politika-mota garatu behar diren aztertu dute ale horretan.

54. zenbakiak ingurune digitalak jorratu ditu. Azken urteotan garatu diren baliabide digitalek sekulako aldaketa ekarri digute eguneroko bizimoduan, isil-isilean baina azkar bai azkar: adimen artifiziala, sakelako telefonoen ekosistema eta *App* direlakoak, Big data, alegiazko errealitatea... Hori guztia gizarte kultura berria moldatzen ari da, helmen handiko baliabide digitalen eskutik. Ale berezi horretan, tresna digitalen erronkak eta aukerak identifikatzen dira adituen kolaborazio eta erreportajeei esker.



4.1 ‘Aldaketaren alde: MEREZI DUGUN NAFARROA’ hitzaldia, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari Uxue Barkosen eskutik

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren karguaz jabetu zenetik Euskal Autonomia Erkidegora egindako lehen bisitan, urtarrilaren 15ean, **Uxue Barkosek** Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaren onurak aldeztu zituen Sabino Arana Fundazioaren gogoeta eta eztabaida mintzagunean, “UPN alderdiaren euskalduntasunaren aurkako ekimena horrenbeste urtetan pairatu ondoren”.

Lau hilabete geroago, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak lankidetz hitzarmena sinatu zuten 18 arlo garatzeko, besteak beste, gizarte-zerbitzuak, fiskalitatea, finantza-politika, lurraldearen antolamendua eta kirola.



4.2 ‘Euskara Foru Aldundien Ibilbidean’ mintegia

Otsailaren 19an, “Euskara Foru Aldundien ibilbidean” izeneko jardunaldian, euskal kulturari eta hizkuntzari lotutako arloetako hainbat ordezkari esanguratsuk parte hartu zuten, besteak beste, Bizkaiko ahaldun nagusiak, **Unai Rementeria** jaunak, eta Gipuzkoako ahaldun nagusiak, **Markel Olano** jaunak.

Jardunaldi horren bidez, euskarak euskal herritarren erakunde-bizitzan izan duen erabilera jorratu zen ikuspegi historikotik eta, gainera, euskara lege-, administrazio- eta gizarte-esparruetan bizirik egon zedin, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek 1917 eta 1923 urteen artean izan zuten ekimen garrantzitsua aztertu zen.



Era berean, euskal erakundeek euskara sustatzen historian zehar egindako lana aztertu zen eta, horretarako, ondokoek hartu zuten parte: **Juan Madariaga**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea; **Andrés Urrutia**, Zuzenbidearen Euskal Akademiako burua eta Euskaltzainburua; **Joseba K. Pérez de Heredia**, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria; **Ana de Castro**, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia; eta **Mikel Irizar**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza

Berdintasunerako zuzendaria.

4.3 ‘Gazteen enplegua: esperientziak eta etorkizuna’ mintegia

Sabino Arana Fundazioak, Europako Parlamentuarekin, Europar Demokraten Institutuarekin (IED) eta Novia Salcedo Fundazioarekin elkarlanean, “Gazteen enplegua: esperientziak eta etorkizuna” izeneko mintegia antolatu zuen joan den apirilean. Mintegi horretan, arloko berrogeita hamar bat adituk, besteak beste, unibertsitateko katedradunek, erakundeetako ordezkariak, eta enpresa eta gazte elkarteetako ordezkariak parte hartu zuten.

Jardunaldian, hiru mahai-inguru antolatu ziren eta, haietan, gazteentzako enplegua etorkizunean sustatzeko helburuz, gure gizartean gertatu behar diren aldaketa nagusiak aletu ziren; Europako beste herrialde batzuetan gazteentzako enpleguaren arloan bultzatu diren ekimenak aztertu ziren; eta Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharko liratekeen politikak jorratu, bertako gizarte-, ekonomia-, enpresa- eta hezkuntza-ezaugarriak kontuan hartuta.



Lehen mahai-inguruan, “Balioak, hezkuntza eta enplegua” izenekoan, ondokoek parte hartu zuten: Alcalako Unibertsitateko Ekonomiako katedradun **Santiago García Echevarria** jauna eta Novia Salcedo Fundazioko zuzendari **Begoña Etxebarria** andrea. Partaideen arteko ondoko eztabaidan, UPV-EHuko Gizarte Psikologiako katedradun emeritu **Sabino Ayestarán** jauna aritu zen moderatzaile.

Bigarren mahai-inguruan, “Europako esperientzia arrakastatsuak” izenekoan, ondokoek parte hartu zuten: Norvegiako enbaxadore **Johan Vibe** jauna, eta Prospektiker erakundeko soziologo **Raquel Serrano** andrea. Ondoko eztabaidan, Europako parlamentuko kide **Izaskun Bilbao** andreak jardun zuen moderatzaile.

Azkenik, hirugarren mahai-inguruan, “Zer egin daiteke gurean?” deritzon gaia jorratu zen. Mahai horretan, ondokoak aritu ziren eztabaidan: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusi **Adolfo Alustiza** jauna; Confebask erakundeko **Virginia Múgica** andrea; Erromako Klubeko euskal taldeko koordinatzaile **José Luis Jiménez Brea** jauna; Ekonomiako katedradun eta Enpleguaren Behatokiko zuzendari **Sara de la Rica** andrea; eta Deustuko Unibertsitateko Orkestra Institutuko ikertzaile **Henar Alcalde** andrea. Azkenak moderatzaile jardun zuen.

4.4 ‘1916ko Pazkoko Irlandako matxinadaren jaraunspen argi-iluna: abertzaletasuna ala terrorismoa?’ hitzaldia, idazle eta *Irish Times* egunkariko kazetari Paddy Woodworth-en eskutik

Apirilaren 28an, ‘1916ko Pazkoko Irlandako matxinadaren jaraunspen argi-iluna: abertzaletasuna ala terrorismoa?’ izenburuko hitzaldia eman zuen Paddy Woodworth idazle, *Irish Times* egunkariko kazetari eta University College Dublin-eko Hizkuntza eta Literatura Eskolako katedradun laguntzaileak.

Paddy Woodworth-ek azaldu zuenez, Britainia Handiko armada Lehen Mundu Gerran bete-betean sartuta zegoela, 1916an, Pazko astelehenarekin, Irlandako nazionalista gutxi batzuek indarkeriazko matxinada antolatu zuten Britainiako agintarien aurka. Gertakizun hark oihartzun handia izan zuen munduan, batez ere, herrialde kolonizatuetan; Woodworth-en esanetan, “jaraunspen edo ondare iraunkorra izan da, baina arazo asko ekarri dizkio Irlandari, baita gaur egun ere, mende bat geroago igarota”.



Hala eta guztiz ere, kazetariak zalantza egin zuen zilegi ote den, etikaren ikuspegitik, Irlandako matxinatuak Lehen Mundu Gerran eskala handiko triskantza eta txikizioak justifikatzen zituzten Europako potentzia nagusietako agintariak baino gaiztoagoak izan zirela esatea. Eta zalantza horri hauxe gaineratu zion: “areago esanda, britainiarrek matxinadari dudazko fusilamenduak eginda erantzun ziotenez, Irlandako iritzi publikoa matxinatuen alde agertu zen eta altxamendua arin bai arin hartu zen XX. mendeko irlandar nazioaren behin betiko eta sortzezko egintzatzat”.

4.5 ‘Euskara erbestean’ hitzaldia, Xabier Irujoren eskutik

Xabier Irujok, Nevadako (Reno) Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko zuzendarikideak, “Euskara erbestean (1936-1975)” izeneko hitzaldia eman zuen maiatzaren 19an, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Irujok azaldu zuenez, Bigarren Karlistadako guda zelaian, euskal herrietako berezko instituzio politikoak indargabetu ostean, euskal kulturako eta euskal izaeraren egoera latzaren aurrean Eusko Pizkundeari ekingo zioten 1876ko gizaldiko euskaltzaleek. Irujoren aburuz, “Euskararen egoera izan zen zenbait egile eta pentsalariren kezka nagusia. Indarraren indarrez lortu zuten gizaldi hartako



lagunek euskarari bultzada ematea: 1850 eta 1875 bitartean, 12 liburu argitaratzen ziren euskaraz urtean; 1916 eta 1936 urteen artean, aldiz, 31 argitaratu ziren. Baina 1936ko Gerrak heriotza, espetxea, erbestea edota zigorra erakarri zuen euskaraz hitz egiten edo idazten zutenen gain. Ondorioz, Eusko Pizkundeko asmoetan hazitako baino 1936ko Gudako euskaltzale erbesteratuz osatutako gizaldi berri batek ekin behar izan zion Ameriketatik euskararen berpizkunde lanei bi helburu nagusiekin: euskararen normalizazio proiektuari ekitea eta euskararen duintasuna aldarrikatzea. Eta lan horietan, itzulpena dugu giltza”.

4.6 ‘Euskara Argentinan. Nortasuna eta sentimendua’ hitzaldia, Magdalena Mignabururen eskutik.

Aste batzuk geroago, hain zuzen ere, ekainaren 2an, Magdalena Mignaburu andreak, Argentinako euskal diasporaren gaineko aditu eta ikertzaileak, mintzagune horretan bertan parte hartu zuen eta euskarak Argentinan egin duen ibilbidearen urratsak aletu zituen: lehen euskaldunak herrialde horretara heldu zirenetik gaur egungo *Argentinan Euskaraz* programara.



4.7 ‘Europa bidegurutzean. Burujabetza auzitan: migrazioak eta *Brexit* ekimena’ mintegia

Brexit erreferenduma eta iheslarien krisialdiari nahiz EBk Turkiarekin sinatutako akordioari lotutako migrazio-arazoak aztertu ziren Sabino Arana Fundazioak eta Europako Alderdi Demokratik (PDE-EDP) ekainaren 9an antolatutako jardunaldian. Jardunaldian, bi mahai-inguru egin ziren.

Lehen mahai-inguruan, *Brexit* izenekoan, hain zuzen ere, ondokoek parte hartuko dute: **Graham Floater**, *London School of Economics* (LSE) eskolako ikertzaile nagusia eta lehen ministroaren aholkulari ohia; eta **Shaun Riordan**, Geopolitical Risk Consulting erakundekoa, arrisku geopolitikoaren inguruko aholkularia. Riordan Britainia Handiko kidego diplomatikoko kidea izan zen 16 urtean. Hizlarien eta jardunaldira etorritakoen arteko geroko eztabaidan, **José Ramón Bengoetxea**, Eurobask-eko idazkari nagusia eta EHuko Europako Zuzenbide, Teoria Juridiko, Soziologia eta Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea, aritu zen moderatzaile.

Bigarren mahai-inguruan, *Migrazioak* izenekoan, ondokoek jardun zuten hizlari: **Kenneth Thompson**, EBko enbaxadore ohia Turkian; eta **María Eugenia Rodríguez**, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titularra. Hitzaldien osteko eztabaidan, **Xabier Aierdi** soziologoak jardun zuen moderatzaile.

Europako gaietan aditu, unibertsitateko katedradun, herri-erakundeetako ordezkari eta immigrazioaren arloan lan egiten duten antolakundeetako ordezkariak parte hartu zuten jardunaldian, guztira, 50 lagunek baino gehiagok.



4.8 ‘Euskal Herriko Zuzenbide Zibila, oraina eta geroa’ mintegia

Joan den ekainaren 15ean, Zuzenbidearen Euskal Akademiak, Sabino Arana Fundazioak, Abokatu Euskaldunak batzordeak eta Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko Euskal Herriko Zuzenbide Zibila Ikertzeko Taldeak antolatutako jardunaldi bat egin zen Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkunaren egoitzan, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren laguntzaz. Jardunaldi horren xede nagusia Euskal Zuzenbide Zibilaren Lege berriaren eta eremu juridikoan euskarak daukan egoeraren inguruan hausnartzea izan zen.



“Euskal Herriko Zuzenbide Zibila: Oraina eta Geroa” izenburupean, Herri Administrazio eta Justizia sailburuordeak, Josu Erkorekak, “Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalizazio Plana 2011-2020” deritzonaren “Ebaluazio Txostena 2015” aurkeztu zuen. Txosten horren arabera, Euskadiko Justizia Administrazioan lanean dabiltzan langileen erdiak baino gehiagok (% 50,1ek) hizkuntza-eskakizunen bat egiaztaturik dauka, hau da, 2.296 langiletik, 1.150 hizkuntza-eskakizunen baten jabe da; hala eta guztiz ere, transferitu gabeko langileei dagokienez (epailetza, magistratutza,

fiskaltza eta abokatuen kidegoa), kopurua % 18 ingurukoa da.

Era berean, aipatutako agirian esaten denez, 2015ean 29 demanda aurkeztu ziren euskaraz, 70 epai eman ziren ele bietan, 120 deklarazio hartu eta 296 agerraldi izan ziren euskaraz euskal auzitegien aurrean.

“Justiziaren euskalduntzearen abiadura Herri Administrazioaren barruko beste esparru batzuetan baino motelagoa izan da, haren konplexutasunagatik eta ezaugarri bereziengatik, kasurako, eskumenen banaketa, berariazko antolaera eta euskalduntze arloko araudiari Espainiako Gobernuak egin dion judizializazio etengabea”, adierazi zuen Erkorekak.

Erkorekaz gain, ondoko hauek parte hartu zuten jardunaldian: Andrés Urrutia, Esteban Umerez, Juan M^a Atutxa, Gorka Kuartango, Elisabete Piñol, Gontzal Aizpurua, Igor Muniategi, Jose Miguel Gorostiza, Patxi Zabaleta eta Alberto Atxabal.

4.9 ‘IX. Bilboko Elkarriketak. Eraldaketa politiko eta sozialak Latinoamerikan’ mintegia

Sabino Arana Fundazioak Europako Alderdi Demokrataren (PDE-EDP) lankidetzaz antolatutako “IX. Bilboko Elkarriketak” urriaren 3an eta 4an egin ziren Bilbon. Jardunaldi horien bederatzigarren edizioan, besteak beste, Kolonbiako bakegintzaren erronka, Venezuelako egoeraren larritasuna eta Latinoamerikako hauteskundeak zedarritzen ari diren aldaketak eta joerak landu ziren. Hala, urriaren 3an, **Gutenberg Martínez** jaunak, Miguel de Cervantes Unibertsitateko errektorea eta Txileko Alderdi Demokrata Kristauaren aholkulari nazionalak; eta **Salvador Arriola** jaunak, Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiko ordezkariak, Latinoamerikak, oro har, gaur egun bizi dituen sasoi latzak aztertu zituten eta honakoa adierazi zuten: “herrialde bakoitzaren lana da Latinoamerikako herrialde gehienek egun pairatzen duten krisialditik ateratzeko politika publikoak ezartzea”.



Urriaren 4an, asteartearekin, **Enrique Santiago** jaunak, Kolonbiako bake-prozesuaren inguruko lege-aholkulariak, eta **Guillermo León Escobar** jaunak, Egoitza Santuaren aurreko Kolonbiako



enbaxadoreak, Gobernuaren eta FARCen arteko bake akordioei buruzko erreferendumean atera den ezetzaren osteko egoera ebaluatu zuten. Diplomazialariak ondokoa esan zuen: “kolonbiar guztiak bat gatoz bakea behar-beharrezkoa dela, baina ez gara iritzi berekoak hori lortzeko moduaren inguruan”. Escobarrek, hala ere, zinez uste du “atzerantz egitea ezinezkoa dela” eta, ildo horretan, “bide berriak urratu behar direlakoan” egon zen. Ate bat itxi da, “baina beste hiru zabaldu dira”, adierazi zuen enbaxadoreak.

Beste alde batetik, Enrique Santiagok gaineratu zuen ez duela uste, hemendik aurrera, dagoeneko sinatuta dagoen akordioak aldaketa esanguratsuak izango dituenik, eta FARCEk hitzartutakoaren alde egingo dutela. *“Uste osoa daukat FARCEk ahaleginak eta bi egingo dituztela bake-prozesuak aurrera egin dezan. Nire iritziz, inor ez da horren arduragabea izango 50 urtetik gora iraun duen gatazka bati amaiera emateko orain daukagun aukera historikoa alferrik galtzen uzteko”,* adierazi zuen.



“IX. Bilboko Elkarriketak. Eraldaketa politiko eta sozialak Latinoamerikan” izeneko jardunaldi horien baitan egindako hirugarren mahai-inguruan, **Luis Ugalde** josulagunak, Caracasko (Venezuela) Hezkuntza Gogoeta eta Plangintzaren Erakundeko zuzendariak, eta **Carmen Beatriz Fernández** andreak, DataStrategia

Consultores enpresako presidentek parte hartu zuten. Biek ala biek Venezuelako egungo egoeraren ikuspegia azaldu zuten eta, Chavismoaren hondakinetatik abiatuta, Venezuela berria eraikitzen ahalegintzeko giltzarrietako batzuk proposatu zituzten.

4.10 ‘Etxe Zurirako lasterketa: hauteskunde-prozesuaren nondik norakoak AEBetako presidentea izendatu arte’ hitzaldia, David Connell, AEBetako enbaxadako bozeramaile eta prentsako agregatuaren eskutik

AEBetako enbaxadako bozeramaile eta prentsako agregatu **David Connellek** hitzaldia eman zuen urriaren 21ean Sabino Arana Fundazioaren egoitzan AEBetako hauteskunde-prozesuaren nondik norakoak eta, 2017ko urtarrilaren 20an, presidente berria karguaz jabetu arte egin beharreko urratsak azaltzeko.

Hitzaldian, ehun bat entzuleren aurrean, Connellek herrialde horretan izango diren hauteskunde orokorren inguruko hainbat alderdi azaldu zituen: boto-sistema, hauteslekuen funtzionamendua, Kongresuko kideen hautaketa eta estatu-hauteskundearen nondik norakoak.

Mintzaldian, enbaxadako bozeramaileak nabarmendu zuen *swing states* (estatu giltzarriak) direlakoek duten garrantzia, halakoek hautagai baten edo bestearen alde egin dezaketelako. Era berean, administrazioen arteko botereen eskualdatzea edo *lame duck period* (ahate herrenaren aldia) zelan garatzen den aletu zuen.



4.11

‘Delituak ikertzeko bermeen sistemak *versus* teknologia berriak’ mintegia

Epaile, fiskal, abokatu eta irakasleek eztabaidan jardun zuten Sabino Arana Fundazioan delituak ikertzeko bermeen sistemen inguruan, teknologia berrien erabilera tarteko.

Sabino Arana Fundazioak, urriaren 24an, teknologia berriez lagundurik delituak ikertzeko bermeen sistemen inguruan antolatutako jardunaldian, **Pedro Crespo** jaunak, Auzitegi Goreneko Salako fiskalak, ondokoa esan zuen: “zigor-arloko ikerketa batek irauten duen artean, Konstituzioan aldarrikatzen diren oinarritzko eskubideen arabera tutoretza-maila bereizi eta berezitu behar da”.

“Delituak ikertzeko bermeen sistemak *versus* Teknologia berriak” izenburua izan zuen mintegi horretan, **Miguel Colmenero** jaunak, Auzitegi Goreneko II. Salako magistratuak, ondokoa azpimarratu zuen: “delinkuentzia antolatuen eta, horren barruan, delinkuentzia terroristaren garapenaren aurrean, teknologiak ekarritako aurrerabideak erabili behar ditugu zigor-arloko prozeduran, delitu egiteko planen berri izan dezagun delitugileak ekintza gauzatu baino lehen eta, beraz, kalte eraginkorra sorrarazi baino lehen”. Horrek guztiak ezin die kalterik egin herritar guztien oinarritzko eskubideen babesari, ezta ustezko delitugileen oinarritzko eskubideen babesari ere”.

Teknologia berrien erabileraz lagundurik, delituak ikertzeko arazoari irtenbidea emateko asmoz, urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoak aldatu zuen Prozedura Kriminalaren Legearen Erreformatik

eman behar zuen erantzun egokia. Alabaina, Cresporen iritziz, “Lege horrek berak aitortzen du Espainiako botere legegileak ez daukala gaitasunik zigor-prozeduraren ereduaren erabateko berrikuntza beharko lukeen adostasuna lortzeko”; ildo horretan, fiskalaren aburuz, prozedura hori “zaharkitua eta zuztargabea da eta oraingo gizartearen beharrezanetatik urrun dago”.

Horregatik guztiagatik, Crespok esan zuen

“kanal itxi batetik bideratzen diren komunikazioak kontrolatzea, komunikazio horiei atxikitako datuak tratatzea, zuzeneko komunikazioak etxebizitzetan barruan eta kanpoan edo leku itxietan atzematea eta abar ustezko herritar errugabeen pribatutasunaren esparru sentikorrenari dagozkio, eta beraz, komunikazio horien inguruko tratamenduak eztabaida biziak pizten ditu, eta segurutik, piztuko ditu hurrengo urteetan”.

Hala, bada, jardunaldiaren xede nagusia izan zen urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoak aldatu zuen Prozedura Kriminalaren Legearen Erreformatik Auzitegi



Gorenak, Konstituzio Auzitegiak eta, batik bat, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazitako gabeziei behar bezala erantzuten ote dien aztertzea eta eztabaidatzea. Ildo horretan, mintegia beste urrats bat izan dugu azken bost urteotan, hau da, ETA erakundeak behin betiko su-etena iragarri zuenetik, Sabino Arana Fundazioa egiten ari den hausnarketan, herritarrek zigor-prozesuan eduki dauzkaten eskubideen tutoretza eta bermeei lotutako auzien inguruan.

Margarita Uriak, Datuak Babesteko Euskal Agentziako zuzendariak koordinatutako mintegi horretan, besteak beste, ondokoek parte hartu zuten: **Juan Calparsoro**, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko fiskalburua; **Juan Mateo Ayala**, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko magistratua; **Juana Balmaseda**, Legelarien Euskal Kontseiluko kidea; **Manuel Lezertua** arartekoa; **Enrique Lucas**, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea; **Javier Mira**, Valentziako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra; **Txema Montero**, abokatua; eta **Alberto Saiz Garitaonaindia**, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako Auzibideen zuzendaria.

4.12 'BREXIT: aukerak eta irtenbideak Eskoziarentzat eta Europarentzat' mintegia

Michael Keating: *"Brexit auzian, Eskoziak zalantza egin behar du hainbat aukeraren artean, baina guztiak ere zailak dira"*

Francisco Aldecoa: *"Azkenean, (Erresuma Batua) EBtik aterako balitz, aukera onena litzateke kanpotik bereizitako integrazioa egitea"*

Nazioarteko harremanetan eta politika zientzietan adituak diren berrogei bat katedradun, erakunde-ordezkar, abokatu eta abarrek, *Brexit* delakoaren ostean, Eskoziaren eta Europar Batasunaren arteko harremanak bideratzeko aukerez eta irtenbideez eztabaidatu zuten Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak (IED) antolatutako jardunaldi batean.

Horretarako, besteak beste, ondoko hizlariak parte hartu zuten: **Michael Keating**, Aberdeengo eta Edinburgoko unibertsitateetako politika zientzietako irakaslea eta Eskoziako *Centre on Constitutional Change* erakundeko zuzendaria; **Francisco Aldecoa**, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Nazioarteko Harremanetako katedraduna; eta **Antónios A. Nestoras**, Europar Ikaskuntzen Institutuko kidea.



Keating-en arabera, *Brexit* auzian, Eskoziak zalantza egin behar du hainbat aukeraren artean, “baina guztiak ere zailak dira”.

Joan den 2016ko ekainaren 23ra arte, “Batasun” biak osagarriak ziren Eskoziarentzat, baina handik aurrera bateraezinak dira. Izan ere, 2014ko erreferendumean, eskoziarrek Erresuma Batuan geratzearen aldeko hautua egin zuten eta, bi urte geroago, are gehiago handiagoaren babesaz, Europar Batasunean geratzeko hautua egin zuten, baina, orain, eskoziarren nahia zapuztu dezake britaniarren gehiengoak *Brexit* ekimenaren alde hartutako erabakiak, hau da, EBtik alde egiteko erabakiak.

Horregatik, Eskoziako konstituzio-eztabaidari lotutako auziak aztertzeko bost erakundek sortutako Centre on Constitutional Change erakundeko zuzendariaren aburuz, eskoziarrek honako aukeretako baten alde egin behar dute: “ekainaren 23ko emaitza onartzea eta EBtik ateratzea; EBn geratzea eta Erresuma Batutik ateratzea erreferendum bidez erabakita; Britainiako koalizio batean parte hartzea EBtik modu “bigunean” (soft *Brexit*) ateratzeko; ala Eskoziarentzako hitzarmen berezia negoziatzea Europarekiko loturei eusteko”.

Beste alde batetik, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko katedradun Francisco Aldecoaren iritziz, britaniarren erreferendumaren emaitzak “ez dakar, halabeharrez, su EBtik atera behar izatea”. Aldecoaren aburuz, “erabakia oraindik ez da hartu; ateratzeko erabakia hartu beharko da”.

Francisco Aldecoak, Europar Batasuna eraikitze prozesuaren gaineko aditu nagusietako batek, honakoa esan zuen: “hasieratik bertatik, Erresuma Batua ez da eroso egon Europar Batasunaren barruan eta trabak jarri dizkio integrazioari; hori dela eta, herrialde hori ateratzea onuragarria izan daiteke eta aukera bihur liteke lehen oztopatzen zituen aldaketak egin ahal izateko (gizarte eredia blindatzea, defentsaren auzia...)”. Aldecoaren ustetan, Erresuma Batuentzako eredurik onena litzateke, azkenean, EBtik aterako balitz, “kanpotik berezitateko integrazioa egitea”. Hau da, “orain arte egin dutenaren antzera, konstituzio estatuturik sinatu ez dutelako, gainerako estatu kideek egin moduan, baina kanpotik, erakundeetan egon barik”.



Jokin Bildarratz senatariak moderatutako mintegi horretan, besteak beste, ondokoek parte hartu zuten: **Shaun Riordan**, Geopolitical Risk Consulting sozietatekoa, Britainiako diplomazialari ohia eta nazioarteko analista; **Daniel Innerarity**, Politika eta Gizarte Filosofiako katedraduna, EHUKo “Ikerbasque” ikertzailea eta Gobernanance – Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendaria; **Derek Doyle**, Erresuma Batuko kontsula Bilbon; **José Luis Aurtenetxe**, Bizkaiko Batzar Nagusietako legelari nagusia; **Noé Cornago**, EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra; **Igor Filibi**, EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakaslea; **Iker Goiria**, GFAko Kanpoko Harremanetarako zuzendari nagusia; **Txema Montero**, abokatua; **Paul Ortega**, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria; **Koldo Atxutegi**, BFAko Kanpo Ekintzako zuzendari nagusia; **Santiago Sainz**, Ciudadanos-Euskadiko kidea; eta Eusko Legebiltzarreko hainbat kide, kasurako, **Jon Aiartza**, **Josune Gorospe**, **Amaia Betolaza**, **Amaia Arregi**, **Almudena Otaola** eta **Mikel Arruabarrena**.

4.13 ‘Euskadi Nazioarteko Garapenaren Agendaren aurrean: euskal erakundeen politiken koherentziaren erronka’ mintegia

“Tokiko eta nazioz azpiko gobernuek –herritarrendandik hurbileneko gobernu-erak diren aldetik– funtsezko eginkizuna dute Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH) lortzeko beharrezkoak diren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-aldaketak eragiten. Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) osatzen duten nazioz azpiko gobernuek arlo erabakigarri batzuetan —esate baterako, garraio, hezkuntza, etxebizitza, ura eta saneamenduan— eta garapen iraunkorra lortu eta GIHak betetzeko funtsezkoak diren beste zerbitzu batzuetan egiten den inbertsioa bideratzen dute”. Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundean (ELGA), Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzia Unitateko politiken analista senior Ernesto Soriak goiko adierazpenak egin zituen “Euskadi Garapen Iraunkorreko Helburuen eta 2030eko Agendaren aurrean: euskal erakundeen politiken koherentziaren erronka” izeneko mintegian. Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen mintegia, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean. Mintegian, garapenerako nazioarteko lankidetzan eskarmentua duten 50etik gora adituk, lankidetzak antolakunde eta agentzietako arduradunek, katedradunek eta abarrek parte hartu zuten. Era berean, Koldo Unceta, EHUKo Ekonomia Aplikatuko katedraduna eta EHUKo Hegoa institutuaren Garapen eta Lankidetzak Politikak Aztertu eta Ebaluatzeko ikertzaile nagusia, mintegian izan zen.

17 GIH direlakoek eta 169 helmugek izaera unibertsala, integratua eta zatiezina dute; hau da, herrialde guztietan aplikatuko dira. Horregatik, ELGAko analistaren iritziz, “Garapen Iraunkorraren Helburuak

betetzeko, gobernuek modu eraginkorrean lan egin behar dute sektoreen arteko esparruan beste eragile publiko eta pribatuekin, gobernantzaren eremu guztietan: tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta erkidegokoa. Zalantza barik, beste eskualde eta herrialde batzuetako garapen iraunkorraren eta etorkizuneko belaunaldien ongizatearen gaineko eragin kaltegarriak sistemak begiratzen dituzten politikak diseinatu, gauzatu eta monitorizatzeko era berriak beharko dira”.

Azken batean, azpimarratu zuen “hobekuntza esanguratsua gertatu beharko dela politiken arteko koherentzian, gizarte eta ekonomia iraunkorrakoak arrakastaz bilakatzeko”.

Beste alde batetik, Koldo Uncetaren hitzaldiaren muina izan zen Euskadiko Garapen Iraunkorraren Helburuei heltzeko beharrezana aitortzea, Garapenerako Politiken Koherentzian oinarritzen den berriazko estrategia baliatuta, estrategia horren oinarrizko zutabea den aldetik.

GIH direlakoetan jasotzen diren 17 helburuak lortzeko, Koldo Uncetaren iritziz, “erakundeen eta politikaren babesa behar-beharrezkoa da, eta gainera, bultzada partekatua bideratu behar da”. Horrez gain, Uncetak azaldu zuen konpromisoa hartu behar dela Agenda 2030 osoari eragiten dizkioten bi eremutan: “Hezkuntza-politika eta kontratazio- nahiz erosketa-politika publikoa”.



4.14 Hitzaldi-zikloa: Lehen Eusko Jaurlaritzaren eraketaren urteurrena

○ «Lehen Eusko Jaurlaritza Bilbon (1936-1937). Eusko lur gainean zutunik»

Lehen Eusko Jaurlaritza eratu zela, 80. urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan, Sabino Arana Fundazioren gogoeta eta eztabaida mintzaguneari loturik, azaroaren 22an, honako liburu hau aurkeztu zen: «Lehen Eusko Jaurlaritza Bilbon (1936-1937). Eusko lur gainean zutunik».

Bilbao 700 Fundazioak argitaratu duen liburu horretan, gerrari aurre egin behar izan zioten bakearen aldeko gizonek Euskadin bizi izandakoaldi erabakigarri horretako inguruabarrak kontatzen dira.

Euskadiko historiako uneak ditugu, ondokoek bizi izandakoak: José Antonio Agirre (Lehendakaria eta Defentsa sailburuordea), Ramón María Aldasoro (Merkataritza eta Hornikuntza sailburua); Juan



Astigarrabia (Herri Lanen sailburua); Santiago Aznar (Industria sailburua); Alfredo Espinosa (Osasun sailburua); Juan Gracia (Gizarte Laguntzako sailburuordea); Jesús María Leizaola (Justizia eta Kultura sailburua), Telesforo Monzón, (Herrizaintza sailburua); Gonzalo Nárdiz (Nekazaritza sailburua); Eliodoro de la Torre (Ogasun sailburua) eta Juan de los Toyos (Lan, Aurreikuspen eta Komunikazio sailburua).

Lehen Eusko Jaurlaritza Bilbon (1936-1937). Eusko lur gaineen zutunik» liburua Leyre Arrieta, Eider Landaberea, Miren Barandiaran, Iñaki Goigana, Asier

Madarieta eta José Antonio Rodríguezek idatzi dute.

○ **‘La Causa del Pueblo Vasco. 60 urte’ hitzaldia, Deustuko Unibertsitateko Historiako doktore eta Komunikazio Saileko zuzendari Leyre Arrietaren eskutik**

Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Saileko zuzendari eta Historiako doktore Leyre Arrietak izenburuan aipatutako gaiari buruzko hitzaldia eman zuen abenduaren 14an, Sabino Arana Fundazioan, Lehen Eusko Jaurlaritzaren eraketaren 80. urteurrenari lotutako hitzaldi-zikloaren baitan.

Hitzaldian, Leyre Arrieta historialariak Xabier Landaburu gasteiztarraren lan nagusia izan zen “La Causa del Pueblo Vasco” liburua 60. urteurrena hartu zuen hizpide. Lan horretan, beste inon baino hobeto bildu dira atzerrialdian izan ziren abertzaleen ideiak eta, zalantza barik, sasoi horietan biziki aurreratutak ziren gogoetak ekarri dizkigu. Esan beharrik ez dago liburu hori nahitaez irakurri behar dutela atzerrialdian egituratu zen abertzaletasun moderatuaren nondik norakoez jakin nahi dutenek, bai eta nazionalisten egungo proposamenak argiro ulertu nahi dutenek ere.



Hitzaldian, Leyre Arrieta historialariak “La Causa del Pueblo Vasco” liburuan adierazitako ikuspegi politikoak laburbildu zituen; gainera, Landaburuk idatzitako gogoeten, helburuen eta lanaren mezuaren inguruko testuingurua aztertu zuen, liburua argitaratzeak sorrarazi zituen erantzunak jorratu zituen.

4.15 Tailer didaktikoak eta ahozko historiari lotutakoak

Museoen Nazioarteko Eguna Goaz Museum-Euskal Abertzaletasunaren Museoa

Maiatzaren 18an, Lehen Hezkuntzako berrogeita hamar bat ikaslek Museoen Nazioarteko Eguna ospatu zuten Sabino Arana Fundazioaren Goaz Museum-Euskal Abertzaletasunaren Museoa, euskaldunek antzina erabilitako arboglifoen artearen inguruan (euskal artzainek Ameriketako basoetako zuhaitzetan eginiko grabatuak). Era berean, ikasleek Ameriketara joan ziren euskal artzainen historia ezagutu zuten tailerrari esker.



‘Idatzi eta amets egin Nurren amamarekin’



Bilboko Aingeru Jagoleen ikastetxeko hirurogeita hamar bat neska-mutilek azaroaren 21ean parte hartu zuten Toti Martínez de Lezea euskal idazleak emandako tailer didaktiko eta pedagogiko batean. “Idatzi eta amets egin Nurren amamarekin” izeneko tailer horren bidez, irakurzaletasuna bultzatu nahi izan zen Lehen Hezkuntzako ikasleen artean. Horretarako, euskal idazleak umeentzat idatzi dituen Nurren ipuinak baliatu ziren. Nur Totiren loba da eta Txinan bizi da. Eleberri horietan oinarriturik, Totik adin horretako umeek bizi dituzten istorioak kontatu zizkien ikasleei.

“Mende berriko eskola: kulturartekotasuna”. Gabonetako postalak lantzen

Gabonak etorri orduko, teknologia berriek atzean uzten ari diren tradizio bati eutsi nahi izan diogu. Gabonak etorri orduko, teknologia berriek atzean uzten ari diren tradizio bati eutsi nahi izan diogu. Horrela, Artxandape ikastolako DBHko 3. eta 4. mailako lau ikasle-taldek “Mende berriko eskola: kulturartekotasuna” izeneko tailerrean parte hartu zuten. Antton Irusta filologo, ipuin-kontalari eta euskal idazleak eman zuen tailerra. Bertan, lur honetako kultura-balioak goraipatzen dira eta, era berean, euskal herritarron gaitasuna gure izaerari eusteko mundu globalizatu honen barruan, betiere tradizioei eutsita. Irustaren eskutik, Artxandape ikastolako gazteek Gabonetako txartelak egin zituzten, betiko eran egin ere. Eta benetako “harribitxi” horiek, segururik Gabonaldian erabiliko zituzten senide eta lagun maiteei oparitzeko, bihotz-bihotzez. Horretarako, Sabino Arana Fundazioan gordetako txartelak erabili genituen eredutzat, frankisten kartzeletan preso egondakoen senideek dohaintzan emandakoak.



“Etorkizuna eraikitzen: izan garelako izango dira”

Abenduaren 20an, Artxandape ikastolako DBHko 4. mailako (15 eta 16 urte) 50 ikasek baino gehiagok Oroimen Historikoari buruzko tailer batean parte hartu zuten. Aranzadi Zientzi Elkarteko Olatz Retegik eman zuen tailerra.



Gure egunotan, migrazioek ezberdinarekiko bizikidetzaren aurrean eta aniztasuna kudeatzeko erronkaren aurrean jartzen gaituzte. Ikas dezagun, beraz, gure historiako hainbat alditako atzerriratu, babesdun eta iheslarien herri gisa daukagun eskarmentutik.

“Etorkizuna eraikitzen: izan garelako, izango dira...” izenburupean, Olatz Arrietak II. Errepublikaren hastapenez, Gerra Zibilaren bigarren zatian jazotako gertakizunez, iheslariez, gerrako umeez, errepresaliez eta abarrez jardun zuen; geroago, Aranzadi Zientzia Elkartek gaur egun jorratzen dituen lanez aritu zen (ikerlanak, gorpuzkien eta hilobien aurkikuntza, ADN analisiak...).

Ikus-entzunezko baliabideen bitartez, Artxandape ikastolako ikasleek hainbat garaitako lekukotasunak eta ondorioa argia eta garbia izan zen: oroimen historikoa guztiz garrantzizkoa eta beharrezkoa da gure historiak jakiteko.

“Historia: Ezagutu eraldatzeko”

Abenduaren 21ean, 15 eta 16 urte arteko berrogeita hamar ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten tailer horretan, Aitor Miñambresen eskutik eta Berangoko Burdin hesiaren Interpretazio Gunearen lankidetzaz, Tailerraren helburu nagusia da ikasleei gure historiako oraintsuko gertaerak ezagutaraztea zer gertatu zen jakin dezaten eta akats berdinak berriro ez egiteko.



Sarrera laburra egin ondoren, ikasleek dokumentala ikusi zuten. Dokumentalean, adin horretako gazte bat da protagonista eta ikertzaile-talde bat ikus daiteke Gerra Zibileko gotorleku batean, protagonista gaztea lagun duela. Jakin-minaz bultzaturik, gazteak taldeko kideei galdetzen die horren guztiaren arrazoia eta horren irudimenak 1937ko ekainera eramango du; data horretan, Burdin Hesiko guda gertatu zen. Guda horretan,

beste gudari bat bailitzan, gure protagonistak parte hartu eta kideen nekeez jabetuko da.

Dokumentala ikusi ostean, ikasleek zalantzak argitzeko aukera izan zuten dokumentaleko protagonistetako bati galdetuta, hain zuzen ere, gudarien buruzagiari (Aitor Miñambres). Gainera, atrezoko elementuak eta egun horietan arruntean erabiltzen ziren gauzak ikusi eta ikutu ahal izan zituzten.

Euskadiko Lehen Gobernuaren 80. urteurrena. José Antonio Agirre lehendakaria

Sabino Arana Fundazioaren 2016ko jardueren programan, berebiziko garrantzia izan du izenburuan aipatzen den data gogoangariak. Hori dela eta, museoko eta agiritegiko langileak gogotik eta modu koordinatuan aritu dira lanean data horren oroitzaz antolatu diren ekimen guztietan.

Illo horretan, ondoko ekimenak egin dira:

1. Film luzea, Baleuko ekoiztetxearen eskutik.
2. "Agirrerren bila" dokumentala. Zuzendaria: Francés Escribano.
3. Dokumentala, Filmak ekoiztetxearen eskutik.
4. "Gure izaeraren ispilu" (Mauro Saravia eta Egoitz Rodríguez)
5. Liburua (SUA).

Beste batzuk: *Gure Izaeraren ispilu* sustapen-bideoa, EITB-ko leloa, *Street marketing*, Agirrerren balioen agenda, webgunea, sare sozialak, Aste Nagusiko euskarri erraldoia.

San Mameseko ekitaldiko bideoa eta liburuxka.

Sabino Arana Fundazioak orduak eta giza baliabideak eskaini ditu material grafikoa eta audioak aukeratzeko, eta aholkularitza historikoa eskaini die film luzea, dokumentalak, erakusketa eta sustapen-bideoa egin duten arduradunei.

Webgunea sortzeko kudeaketa-lanei dagokienez, domeinuak erabiltzaileak, pasahitzak, berezitasuna teknikoak eta abar kudeatu ditugu.

Era beran, harreman hurbila izan dugu "izan garenaren ispilu" deritzonaren egilearekin. Erakusketa horrek iragana eta oraina lotzen ditu atzerriatu euskaldun eta katalanen birloba den Mauro Saravia azgazki txiletarraren eskutik, eta euskal herri askotan jarri da ikusgai dagoeneko.

Formatu handiko (1,5 x 1 m) 14 argazkik osatzen dute erakusketa eta, horietan, argazkiak 30eko hamarkadako eta oraingo Bilbo uztartu nahi ditu. Bilbon egon zenean, Agirrerren omenezko ekitaldia antolatu zen Bilboko Ertzilla kaleko Yomby aretoan. Ekitaldi horretan, herritarrek eta Urkullu lehendakariak berak parte hartu zuten. Hala, dantzariak, abesbatzak, artistek eta musikariek omenaldi hunkigarria egin zioten lehen lehendakariari ikus-entzule ugariren aurrean.

Geroago, Agirre lehendakariaren senideentzako lore eskaintza egin ondoren, hain zuzen ere, Jose Antonio Agirrerren estatua dagoen leku berean, segizioa Carlton hotelera joan zen eta bisitaldi gidatuaz gozatu zuen Eusko Jaurlaritzaren lehen egoitza izan zenekoan, fundazioko historialari Iñaki Goioanaren eskutik.

6.1 Agiritegiak egindako lanak

- “Esteban Bilbao Eguia” agiritegiako funtsaren antolaketa eta deskribapena: 198 fitxa
- Norbanakoek egindako dohaintzei dagozkien 134 fitxaren deskribapena eta erregistroa
- Ikus-entzunezkoen datutegiari dagozkien 132 fitxaren deskribapena eta erregistroa
- 40 kaseteren grabazioa fitxategi digitaletan (mp3)
- EAJko atzerriratuen fitxategiaren mekanizazioa (422 erregistro)
- Euskal iheslarien fitxategiaren mekanizazioa (1.500 fitxetatik, lehn 259 erregistroak)

Euzkadiko Gobernuaren Lege Onuemale Batzordeari buruzko ikerketa, 1936-1937 aldian

Eusko Jaurlaritzako oraingo Lege Aholku Batzordearen eskariz, Agirre lehendakariaren gobernuaren hastapenetan, 1936ko urrian, sortu zuen batzorde haren inguruko ikerketa egin dugu. Ikerketa dela eta, organo horrek sortutako agiri historikoak aurkitu ditugu Salamancako agiritegian; agiriak antolatu et deskribatu ditugu, txostena idatzi eta erakusketa antolatu dugu (panelak eta arasak) erakunde-ekitaldi bat bururatzeko asmoz LOBen 80. urteurrenaren harira. Ekitaldia abenduaren 16an egin zen Bilboko Carlton hotelean.

6.2 Liburutegiko funtsak

Aurten, 690 lan berri erregistratu dira. 2016ko abenduaren 31n, 43.239 monografiak osatzen dute Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiako liburutegia. Horietatik guztietatik, 31.844 lan Bilboko instalazioetan gordeta daude eta gainerakoak, 11.395 lan, hain zuzen ere, Arteako biltegian gordeta daude.

Orain dela urte batzuk hartutako erabakiari jarraiki, Bilboko biltegian ale bakarra gordetzen da lan bakoitzeko, betiere gaia eta edukiak bat badatoz gure liburutegi espezializatuan gordetzeko ezarri ditugun irizpideekin. Gainerako lanak, oro har, Arteako liburutegira eramaten dira (baliozkotzat jotzen dira, bikoiztuta egon arren); bestela, beste toki batzuetara bidaltzen dira (Gaintzaren bitartez).

2016ko ekitaldian, kopuruari begiratuta, ondokoek egindako dohaintzak nabarmendu behar ditugu: Miren Babio (Retanaren alarguna, *La Gran Enciclopedia Vascak* argitaratutako lanak), Gaintza, Iñaki García Uribe edo Iñaki Anasagasti, besteak beste.

6.3 Uzturre hemeroteka

Urte osoan zehar jaso diren aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jardun dugu. Ale guztiak sailkatu, antolatu, eta bana-banaka egiaztatu ostean (behin baino gehiagotan ageri ote diren jakiteko) guztira, 150 titulu (eta eta 4.200 ale baino gehiago) erantsi zaizkio hemerotekari 2016an. Uzturre hemerotekako biltegiak 500 metro linealetik gorako edukiera dauka eta, dagoeneko, 7.005 titulu eta 180.958 ale gordetzen dira bertan.

Beste alde batetik, Hustuketa izeneko datutegian (hainbat argitalpenetan, besteak beste, Euzkadi, Alderdi, Hermes Deia, Muga, JEL, Historia Contemporánea eta abarretan informazio historikoari buruz argitaratutako artikuluak jasotzen dituena) 11.455 erregistro jasota daude.

Praktiketako unibertsitate-ikasleek egindako lanak

Praktiketako jarduerak Uzturre hemerrotekari lotzen zaio eta hainbat ikasle aritzen dira lan horretan ikasturterik ikasturte. Ikasleen zeregin nagusiak bi dira: XIX. mendearen amaieratik aurrera, euskal prentsa abertzalean ageri diren euskal abertzaletasunaren inguruko egitura politiko eta sozialari buruzko aipamen guztiak bilatzea eta datutegi informatiko batean jasotzea. 2016ko ekitaldian, Euzkadi aldizkarian (1916) eta argitalpen berriagoetan, hala nola *Revista de Pensamiento Hermes* eta *Historia Contemporánea* aldizkarietan aurkitutako 1.351 berri eta artikulua jaso eta erregistratu dira.

6.4 Web zabalkundea

Ekitaldi osoan lortutako datuak —aurreko ataletan aipatu ditugunak— (agirien deskribapena), Sabino Arana Fundazioaren webgunean txertaturik dagoen datutegi bateratu batean sartzen dira aldiro-aldiro. Horrela, gure biltegietan gordeta dauden liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioa eguneratzen da eta, aldi berean, euskaldunon historiari buruz argitaratzen diren artikulua jasotzen dira.

6.5 Kontsultak

2016ko ekitaldian, informazioa emateko 328 eskaera jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian, gehienbat, e-postaz (113) eta telefono bidez (103). Esan beharra dago gero eta kontsulta gutxiago egiten dela agiritegian bertan (65 kontsulta, 2014an bezala; hortaz, hasiera batean igarritako goranzko joera eten egin da), eskatzaileak zuzenean agiritegira etorrita, hitzordurik hartu barik. Bestalde, aurreko ekitaldiaren aldean, askoz eskaera gehiago jaso ditugu (57, ia bikoitza, aurreko urteko eskaera-kopuruaren aldean) gure webgunean eskuragarri dauden inprimakien bidez.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestaldiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoei, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan beharra dago informazioakontsultatzeko eskaera egin ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien —ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak— izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean. Ikergaiaren zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Banakaketa			
Norbanakoak	175	EAJ eta SAF	24
Unibertsitatea / Ikerkuntza	55	Enpresak / Ekoiztetxeak	13
Gizarte- eta Kultura-erakundeak / Administrazioa	52	Hedabideak (Deia...)	9

1992ko urritik hona, 5.459 kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

6.6 Historia eta dokumentazioari buruzko aholkularitza: lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpen-kontrola...

Lankidetzak

- DEIA egunkariarentzako artikuluak: *Historias de los Vascos* atala, Luis de Guezalak koordinatuta. 42 erreportaje argitaratu dira.
- 2016an egindako ikerlanak:
 - Eduardo Jauregi**
1917: Ramón de la Sota, Euskaltzaindia / Eusko Ikaskuntza: agirien bilketa SAFentzat.
Lege Onuemale Batzordeari buruzko historia (1936-1937): ikerketa, agirien bilketa eta erakusketa Eusko Jaurlaritzarentzat.
 - Luis de Gueza**
Hermesen hustuketa, Eusko Jaurlaritzarentzat
 - Iñaki Goiogana**
Oroimenaren lekuak eta atzerrialdia, Eusko Jaurlaritzarentzat
Agirreren egunerokoaren hitzaurrea alemanezko edizioan
Gorlizko erietxea: hitzaldia eta erakusketa
Lehen Eusko Jaurlaritza Bilbon, Bilbao 700 erakundearentzat
- Hitzaldiak eta parte-hartzeak jardunaldi eta hedabideetan (34)

6.7 Norbanakoen dohaintzak

2016ko ekitaldiaren barruan, 47 pertsonak egin dituzte dohaintzak Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian. Aipatutako ekitaldian, 24 pertsona emaile berriak izan dira. Hala, 2016ko abenduaren 31ra arte, 1.464 dohaintza jaso dira.

6.8 Ikertzaileak

2016an, 66 ikertzailek aztertu dituzte gure agiri-funtsak agiritegian bertan.

7.1 Urteko balantzea

2016ko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoaren jarduera nagusiak ondokoak izan dira: argazki-funtsen katalogazioa, dekorazio-artei buruzko funtsaren berrantolaketa eta dohaintzan hartutako gai berrien erregistroa, inbentarioa eta katalogazioa.

Era berean, lanean jarraitu dugu hurrengo funtsak antolatzen, inbentarioan jasotzen eta katalogatzen:

- **Argazki-funtsa:** 2016an jasotako 1.300 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta “Sabino Arana Fundazioa” deritzon moldea txertatu diegu irudiei:
 - Norbanakoek egindako dohaintzen funtsetan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudiei moldea txertatzea.
 - Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
 - Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
 - Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
 - Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Esan beharra dago Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Zientzien eta Komunikazio Fakultateko nahiz Filosofia eta Letren Fakultateko praktiketako ikasleek berebiziko lana egin dutela arlo honetan, ikasleek burutu baitituzte funts batzuetako argazkien digitalizazioa, deskribapen teknikoa eta irudiaren trataera.

- **Arte Grafikoak | Kartelen Atala:** eranskailuen bildumarekin egin bezala, inbentarioa lantzen jarraitu dugu, sarrera berriak txertatu dira eta horiek erregistratu, argazki digitalak erabiliz.

Atal honetan, Filosofia eta Letren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute lanean. Guztira, 1.000 erregistrotik gora jaso dituzte inbentarioan aipatutako ikasleok.

- **Arte Grafikoak | Eranskailuen Atala:** erregistro berriak katalogatzen jarraitu dugu, Arte Ederren Fakultateko ikasleek egindako lanari esker. Horrela, 1.800 erregistrotik gora katalogatu eta jaso ditugu inbentarioan.

- **Dekorazio Arteak:** 250 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira.
- **Ehun-funtsa:** 2016ko ekitaldiaren barruan, gure erakundera heldu diren ale berriak aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira. Horiek guztiak Bilboko egoitzan gordeta daude dagoeneko.

Dagoeneko deskribatuta eta inbentarioan jasota dauden funtsei dagokienez, esan behar da, 2016ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak 330 kontsultari erantzun diela eta argazki-funtsean jasotako 400 irudi baino gehiago balitu direla Facebook eta Instagram sare sozialetan argitaratzeko.

Gaur egun, lanean dihardugu 2016an jasotako dohaintza esanguratsuak inbentarioan jasotzen eta euskarri egokietan paratzen. Ildo horretan, nabarmendu behar dira funts guztietan (argazki-funtsa, ehun-funtsa, dekorazio-arten funtsa...) jasotako gaiak.

Aldi baterako erakusketei gagozkiela, 420 elementu baino gehiago laga ditugu gai askotariko erakusketetan ipintzeko, hainbat erakunderekin elkarlanean:

- **Bizkaiko Foru Aldundia**, *“Gernikako sorreraren 650. urteurrena”* izeneko erakusketan.
- **Aranzadi Zientzi Elkarte**, *“AMAIUR Azken gaztelua”* izeneko erakusketan.
- **Bizkaikoa**, *“Askatasun Eguzkia. Sabino Arana Goiri 1865-1903”* izeneko erakusketan.
- **Bakeola**, *“Oroimena bizirik”* izeneko erakusketan.
- **Onda Vasca**, *“55 años de Erri Irratia”* izeneko erakusketan.
- **Donostia San Sebastián 2016 Fundazioa**, *“Lekurik Gabe, Denborarik Gabe”* izeneko erakusketan.

Bestetik, hainbat pieza laga dizkiegu ondoko museo eta erakundeei:

- **Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa**
- **Euskal Poliziaren Museoa**
- **Museo de l’ Exili**
- **Eusko Legebiltzarra**

Beste alde batetik, 2016ko ekitaldian, gure eskaintza didaktikoa handitu da eta bost motatako tailer didaktikoak antolatu ditugu, batetik, Museoen Eguna jorratzeko, bestetik, sormena

lantzeko eta, azkenik, oroimen historikoa berreskuratzeko. Tailerren hartzaileak adin askotako ikasleak izan dira.

7.2 Kontsultak eta lankidetzak

A lo 2016ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak 350 kontsulta baino gehiago jaso ditu eta 2.300etik gora irudi igorri dizkie hedabideei, erakundeei, ekoiztetxeei, ikertzaileei eta norbanakoei.

7.3 Tailer didaktikoak

- “Arboglifoak”

Museoen Nazioarteko Eguna dela eta, maiatzaren 18an, “Museoak eta kultura-paisaiak” leloa erabilita, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak jolas-ildoko tailer didaktiko doakoa antolatu zuen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat. Tailer horretan, Artea jorratu zuten Pinturaren eta Artearen historiaren bitartez.

- “Etorkizuna eraikitzen: izan garelako izango dira”

Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaz, gure historiako gertaerak ezagutu eta gerrak ekarritako ondorioetan sakontzeko.

- “Idazten eta amets egiten Nurren amamarekin”

Toti Martínez de Lezea idazlearen eskutik, irakurzaletasuna sustatzeko helburuz.

- “Historia: ezagutu eraldatzeko”

Berangoko Burdin Hesiaren Interpretazio Gunearekin lankidetzan, gure herrialdean izandako 36ko Gerraren inguruko alderdi historikoak, sozialak, kulturalak... garatzen ditugu.

- “Mende berriko eskola: kulturartekotasuna”

Antton Irusta filologo, ipuin-kontalari eta euskal idazlearen eskutik. 30eko hamarkadako irudiak eta ikurrak erabiliz, Gabonetako postalak egin zituzten ikasleek, bide batez, oroimen historikoa landuta

7.4 Aldi baterako erakusketak eta maileguak

700 gauzaki eta material baino gehiago laga edo maileguan utzi ditugu ondoko erakusketetan erabiltzeko:

- **Bizkaiko Foru Aldundia**, *“Gernikako sorreraren 650. urteurrena”* izeneko erakusketan.
- **Aranzadi Zientzi Elkarte**, *“AMAIUR Azken gaztelua”* izeneko erakusketan.
- **Bizkaikoa**, *“Askatasun Eguzkia. Sabino Arana Goiri 1865-1903”* izeneko erakusketan.
- **Bakeola**, *“Oroimena bizirik”* izeneko erakusketan.
- **Onda Vasca**, *“55 años de Erri Irratia”* izeneko erakusketan.
- **Donostia San Sebastián 2016 Fundazioa**, *“Lekurik Gabe, Denborarik Gabe”* izeneko erakusketan.

Beste alde batetik, hiru erakusketa sortu ditugu:

- **“Jesús Galindez. Haren desagertpenaren 60. urteurrena”**, Amurrioko udaletxean.
- **“Gorlizko erietxeko umeen ebakuazioa, 1937”**, Gorlizko Turismo bulegoan.
- **“Euzkadiko Gobernuaren Lege Onuemale Batzordearen 80. urteurrena, 1936-1937”**, Carlton hoteleko atarian.

7.5 Lekukotasunen bilketa

Oroimen historikoa berreskuratzeko asmoz, lekukotasunak batzeko proiektuari ere ekin diogu 2016an eta, ildo horretan, ondokoei egin dizkiegu elkarrizketak: Mari Luz Bereciartua, Maria Begoña Basabe, Niko Laka, Lore Albizu eta Ander Zubizarreta.

7.6 Norbanakoek egindako dohaintzak Euskal Abertzaletasunaren Museoan

2016ko ekitaldian, 800 pieza eta 100 irudi baino gehiago (horietako asko argitaratu gabekoak) eta 190 kartel inguru jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan, hogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

Sabino Arana

PREMIOS 2015 SARIAK



ATZOKOAN FINKATUZ, GAUR BIHARKOA BULTZATU

Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXVII. edizioa egin zuen urtarrilaren 31n, Bilboko Arriaga antzokian. Kultura-ekitaldi horretan, ondokoek jaso zuten saria: **John Garamendi**, AEBetako Kongresuko kide demokrata eusko-kaliforniarra; **Leopoldo Zugaza** kultura-eragilea; **CEAR-Euskadi**, Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin; **Velatia** industria- eta teknologia-taldea; **Maialen Chourraut** arraunlari gipuzkoarra; eta **Alex Salmond** politikaria, Eskoziako lehen ministro ohia.

Iñigo Urkullu lehendakariak gain, gure herriko politika-, kultura- eta gizarte-esparruetako ordezkari ugari izan ziren ekitaldian.

Sarrera-hitzaldian, Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan M^a Atutxak gogorarazi zuen ordura arte 148 pertsonak, erakundek eta ekimenek jaso dutela sariak banatzeko egun horretara arte egin diren 27 edizioetan. Gogoia, balioak eta merezimenduak aintzatesten dira sari hauen bidez eta, Atutxaren iritziz “balio horietan guztietan oinarriturik, norberak esperantza dauka mundu hobe eta Euskadi hobe izan daitezkeelakoan”.

Ispaster eta Ondarroako euskaldunen ondorengoa den John Garamendik, AEBetako Kongresuko kide demokrata eusko-kaliforniarrak eta, gaur egun, jaioterriko herrialdeko gobernu-organo gorenetaordezkariak, gogorarazi zigun aitite Saturninok honako hau adierazi ziola bere hautapenaren bezperan: “John, eizu egoera hobetu daitela seme-alabentzat”.

Gaur egun, Garamendi jakitun da egoera hobetu dela, baina egungo “gatazka militarrek, terrorismoa eta ziurgabetasun ekonomikoa arriskuan jartzen ari dira biharko seme-alaben etorkizuna”. Bestetik, klima-aldaketaren ondorioez ohartarazi zigun: “bizimodu hobe arin bai arin lortu nahi dugula eta, planeta honetako klima aztoratzen ari gara. Lurra berotzen ari da, gertaera meteorologikoak gero eta muturrekoagoak dira eta ondorioak biziki zorigaitzokoak dira”.

Amaitzeko, Garamendik honakoa esan zuen: “bistakoa da Euskadin geratu zirenek aititek niri emandako agindu berbera entzun zutela. Eta zalantzarik ez dago horrelaxe egin duzuen. Ekonomia boteretsu eta dinamikoa eraiki duzue, betiere euskal kulturari eutsita. Arren eskatuko dut gure seme-alabek ere zeregin horri ekin diezaioten, belaunaldiz belaunaldi”.



Leopoldo Zugazak, kultura-ekimenetan agerian geratu diren hutsune batzuk mahairatu ondoren, boluntariotza bultzatzeko politika iradoki zuen: “gure herriak antzinako ohitura bat dauka, auzolan deiturikoa, hau da, auzo edo komunitate bateko kideen elkarlan eskuzabala bideak hobetzeko, ura ekartzeko edo beste zerbitzu batzuk eskuratzeko. Zergatik ez dugu ohitura hori erabiltzen gure kultura-zerbitzuetan?” Beste alde batetik, arlokako azterlanak egin daitezen proposatu zuen arlo bakoitzean parte hartzen duten guzti-guztiek prestakuntza egokia jaso eta behar bezalako erantzukizunaz jabetu daitezen: administrazioak, hezkuntza-erakundeak, kultura-erakundeak, herritarrak.

Javier Galparsorok, CEAR-Euskadi (Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin) elkarteko presidentek, ondokoa nabarmendu zuen: “aintzat hartu behar dugu atzerrialdiaren bizipena ez dela bakar-bakarrik lekuz aldatzen den pertsonarena, ezpada, harrera egiten dioten lagunena, eskolan, lanean, auzoan edo mendian elkarrekin daudenena. Gizatasunez harrera egitea mundu hobean biziko garelako esperantzari eustea da, hari eta, egunen batean, asilo-eskubidea desagertzen den arte, eskubide hori beharrezkoa izango ez delako. Gizatasunez harrera egitea indarkeria eta txirotasunetik at bizitzeko itxaropena da, hots, mundu honetako izuei aurre egitea, samurtasunaren eta besarkadaren bidetik”.

Galparsorok gogorarazi zuen 2015eko irailean “Europar Batasuneko 24 herrialdek konpromisoa hartu zutela 160.000 iheslariri harrera egiteko 2 urteko epean, baina gaur arte, 331 pertsona besterik ez direla heldu gure kontinentera; Euskadira, adibidez, hiru eritrear heldu ziren azaroaren erdialdean”. Hori dela eta, honako galdera hau partekatu zuen bertaratutakoekin: “zer-nolako inbasioz ari dira gure politikari eta agintariak?”

Velatia enpresa-taldeko presidentek, Javier Ormazabal Etxebarriak, aita ekarri zuen gogora, hau da, enpresa-taldea sortu zuen Javier Ormazabal Ocerin jauna, orain dela bi urte baino zertxobait gehiago hil zena, eta familia-enpresen balioak nabarmendu zituen: “VELATIA industria-taldean 3.000 pertsonak baino gehiagok lan egiten dute nazioarteko leku askotan; argi dago taldearen ildoetako bat

globalizazioa dela, baina, bestalde, esan beharra dago oso sustraituta dagoela sortu zen lurraldean eta, horregatik, zelanbait esanda, 'gure jaioterriko profetatzat' daukagu gure burua. Herri honek enpresaburu ugari eman ditu. Eta enpresaburu horiek, nire aitag egin bezala, ideia bat eduki, ilusio bat eduki, eta ilusio horri lotu zitzaizkion betiko. Gure herriak, inolako zalantza barik, etorkizun oparoa izango du aurrean ditugun aukerak ilusioz eta ahaleginez lantzen baditugu" azpimarratu zuen.

2012ko Londresko olinpiar jokoetan brontzeko domina eta 2015eko Europako txapelketa irabazi dituen Maialen Chourraut arraunlari lasarte-oriatarrak hauxe esan zuen: "erakundeetatik jaso dudak laguntzak erruz gainditu ditu nire aurreikuspenak". Bestalde, esker oneko hitzak eskaini zizkien familiartekoei: "Esan beharrik ez dago familiak erabateko laguntza eta babesa eskaini dizkidala beti. Nire familiak hegoak eman dizkit, hegan egiteko hegoak, gora-gora eta askatasunez hegan egitekoak; eta maitasuna, segurtasuna, adeitasuna, itzala, begirunea..."

Hurrengo erronkei dagokienez, aipatu beharra dago Maialenek Río de Janeiron (Brasil) abuztuan izan ziren olinpiar jokoetan parte hartu behar zuela. Hori dela eta, Maialen Chourrautek honakoa aitortu zuen: "datorren abuztuaren 11n nik neuk gaurko agertoki honetan daukadan emozioa kutsatzen baldin badizuet, gauza ziurra izango da helburua bete egin dugula". (Azkenik, Maialenek urrezko domina poltsikoratu zuen eta denon aitortza eta txaloak izan zituen).

Azkenik, Eskoziako lehen ministro ohiak, Alex Salmondek, Eskoziako prozesuak Euskadikoarekin eta Kataluniakoarekin dauzkan antzekotasunei buruz, honakoa esan zuen: "Eskozia ez da Euskadi, ezta Katalunia ere, baina hiruretan, jendeak autonomia handiagoaren eta independentziaren egarria dauka. Nazio horiek zenbat eta autodeterminazio handiena lortu, orduan eta proiektu gehiago garatu ahal izango dituzte etorkizunean. Bestetik, adierazi zuen "elkartasunik ez erakusteak, adibidez, iheslarien krisialdian, Europako egitura zaharren ageriko porrota erakusten duela".

Olaia Urtiaga kazetariak maisutasun handiz aurkeztu zuen ekitaldia eta **Iñaki Bermúdez** (saxofoi-jotzailea) eta **Imanol Casán** (piano-jotzailea) musikariek osatutako **Lauso bikoteak** girotu zuen sariak banatzeko saioa.

BESTE ANTOLAKUNDE ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioaren izaera anitzari esker, hainbat jarduera antolatu ditu beste erakunde eta antolakunde batzuetako ordezkariekin batera, fundazioak berak antolatutako ekimenez gain.

2016. urtean, honako hauek ditugu aipagarrienak:

- **Apirilaren 10a**
Azken urteotan egin legez, Euskadiko Galiziako Etxeen Irmandade deritzon antolakundearekin elkarlanean, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkigile eta nazionalismo galiziarren sortzaileari omenaldia egin genion. Omenaldi horretan, lore-eskaintza egin zen Galiziako politikariari eskainitako monumentuaren aurrean Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan
- **Apirilaren 17a**
Euzkadi'ko Gudontzidiaren Laguntza'ko Ontzitaldea osatu zuten gudariei egindako omenaldian parte hartu genuen Matxitxako lurmuturrean. Antolatzailea: Matxitxako elkarte.
- **Apirilaren 24a**
Frankismoan errepresaliatutako emakumeen omenezko ekitaldi batean parte hartu genuen Elgetan. Antolatzailea: Intxorta 1937 Kultur Elkarte.
- **Apirilaren 26a**
Beste alde batetik, hainbat erakunde, agintari eta Gerra Zibilean bizirik atera ziren lagun batzuekin batera, Gernikako bonbardaketan hildakoen omenez apirilaren 26aren inguruan egindako ekitaldian parte hartu genuen.
- **Maiatzaren 30a**
Berlingo Humbilt Unibertsitateko ordezkari eta ikasleek Sabino Arana Fundazioan izan ziren.
- **Hezkuntza-tailerrak eta erakusketak**
Ikastetxeekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatuko ditugu, ume-gazteek gure historia eta gure ingurunea hobeto ezagut ditzaten.
- **Ekainaren 19a**
“Aterpe 1936” deritzon monumentuaren X. urteurrena.
- **Beste jarduera batzuk**

- Mezu@

2016ko ekitaldian, lanean aritu gara fundazioaren Mezu@ izeneko berripaperak harpidedun gehiago izan ditzan. Berripaper hori geuk antolatutako jarduerak eta fundazioak parte hartzen dueneko jarduerak zabaltzeko baliatzen dugu.

- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzeko ditugu hainbat sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Instagram).
- Artikuluak idatzi ditugu DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte hartu dugu.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte hartu dugu. Fundazioko teknikariek eta langileek mota horretako 35 ekitalditan parte hartu dute 2016ko ekitaldian.
- Beste alde batetik, esan beharra dago webgunean eskaintzen diren inprimakien bitartez jasotako galdera eta eskaeren kopurua ere areagotu dela.

Sabino Arana Fundazioaren 2016ko jardueren programan, berebiziko garrantzia izan du ondoko data gogoangarriak: “Lehen Eusko Jaurlaritzaren eraketaren 80. urteurrena. José Antonio Agirre lehendakaria”. Hori dela eta, museoko eta agiritegiko langileak gogotik eta modu koordinatuan aritu dira lanean data horren oroitzaz antolatu diren ekimen guztietan.

Gogoeta eta eztabaida mintzagune edo tribunari dagokionez, XXI. mendean puri-purian dauden gai eta auzien inguruko azterketa, eztabaida eta hausnarketa landu ditugu, besteak beste: gazteen enplegua eta etorkizuna Euskadin Brexit-en inguruko erreferenduma, iheslarien krisiari lotutako migrazioen arazoak, Eskozia eta Europa Brexit-en ostean, gizarte- eta politika-eraldaketak Latinoamerikan (batik bat, Kolonbian eta Venezuelan), AEBetako 2016ko hauteskundeak, Euskadi Nazioarteko Garapenaren Agendaren aurrean: euskal erakundeen politiken koherentziaren erronka eta abar.

Era berean, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu dira ekitaldi honetan, hain zuzen ere, 52, 53 eta 54. zenbakiak.

Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko harremanen ingurumarian, 2016an aurreikusitako hainbat ekitalditan parte hartu dugu (Euskadiko Galiziako Etxeen *Irmandadea*, beste fundazio batzuen jarduerak, udal, aldundi, eta ikastetxeek antolatutako jarduerak, Europar Demokraten Alderdiak eta Europar Demokraten Institutuak antolatutako jarduerak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Euskaltzaindia...)

Aurrekoez gain, Sabino Arana Sarien XXVII. ekitaldia ospatu genuen.

Jarduerak horiek guztiek sekulako garrantzia ematen diote Sabino Arana Fundazioari eztabaidagune gisa. Gogorarazi behar dugu Sabino Arana Fundazioak egundaino egindako ibilbidean gizarte anitzaren aintzatespena eta laguntza jaso dituela, bai gizartearen beraren aldetik, bai politikarien aldetik.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Adibide argigarri bat ematearren, gogoeta eta eztabaida sustatzen dituen mintzaguneak antolatutako hitzaldietan, batez beste, 100 lagunek parte hartzen dute; Sabino Arana sarien banaketa-ekitaldian, 1.000 lagun inguru izaten dira; eta erakusketak, antolatzen direneko lekuaren eta iraupenaren arabera, 800-5.000 lagunek ikusten dituzte.

Kultura zabaltzeko plangintza oparo hau Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan garatzen da, eta jarduera horien guztien berri jasotzen da hedabideetan.

Beste alde batetik, nabarmendu behar dugu Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delakoan baikaude.

Era berean, emakumeen parte-hartzea bultzatzen dugu fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan eta genero-berdintasuna sustatzen dugu. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu

berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Horrela, arau hori gogoz betetzen ahalegintzen gara fundazioaren erabakimen-organoetan —Patronatuaren Batzordea— zein gure gonbidatu eta parte-hartzaileen artean.

Bekadunak, praktiketako ikasleak eta kolaboratzaileak

2016an, 14 ikaslek praktikak egin dituzte Sabino Arana Fundazioan (12 museoan eta 2 agiritegian). Era berean, bekadun bat izan da gurekin eta beste lau pertsonak eskuzabaltsunez lagundu digute Fundazioak antolatzen dituen jardueretan.

Txostenean emandako kopuru eta datu guztietan oinarri harturik, gure uste apalean, arrakastaz bete ditugu ekitaldiaren hasieran aurreikusitako helburuak.